

3.- GAIA.

ADMINISTRAZIO EGINTZAK BERRIKUSTEA

1. Kontzeptua eta irismena
2. Objektua eta mugak
3. Organo eskudunak
4. Egintza deusezak berrikustea
5. Administrazio egintza deuseztagarriak eta mesedegarriak berrikustea
6. Egintzak errebokatzea
7. Akatsak zuzentzea

1. Kontzeptua eta irispina

1. Zer da berrikustea? Kontzeptuak ez dauka zerikusirik errekurtsioekin edo Administrazioak egin dituen akatsak zuzentzearekin. Administrazioa saiatzeko da berak emandako ebazpenak deuseztatzen edo baliorik gabe uzten, ohartzen delako ordenamendu juridikoaz kanpo daudelako. Kasu batzuetan, legez kontraktasuna oso larria dela eta, APELEk edozein unetan baimentzen dio Administrazioari berak emandako ebazpenak berrikustea. Besteetan, aldiz, horiek berrikusteko epemuga ezartzen du, ordenamendu juridikoaren bortzapena ez baitago hain kaltegarria interes publikorako. Prozedura horiek ezberdindu behar ditugu beste batzuekiko, errekurtsioei dagokienak – hurrengo irakasgaietan azaltzen dena – edo zuzenketa aritmetikoak egiteko ahalmena.

2. Lehenik eta behin, errekurtsioak jartzeko, ezinbestekoa da egintza irmoa ez izatea. Beraz, errekurtsioa aurkezterako orduan, kontuan hartu behar da ea igaro den epea errekurtsioa tarteratzeko (hilabete bat). Gainera, interesdunek baino ezin dute aurkeztu helegitea, eta Administrazioak ezin du esku hartu bere ekimenez edo ofizioz. Egintzak berrikusteko prozeduretan, aldiz, Administrazioak berak has dezake prozedura eta, gainera, kasu batzuetan – egintza deuseza denean – edozein momentutan egin dezake, beti ere beherago azaltzen diren mugei men egiten bazaie. Beraz, nahiz eta egintza irmoa izan, oraindik ere balegoke bidea ebazpena deuseztatzeko. Egintza deuseztagarria denean, ostera, prozedurari ekiteko epea lau urtekoa da egintza edo epaia irmoak direnetik.

3. Bigarrenik, errekurtsioa organo eskudunetik gorako organoak ebazten du, eta, gainera, helegitea ezetsi arren, errekurtsio egileak jurisdikziora jotzeko aukera izango du Administrazioak emandako ebazpenarekin ados ez badago. Egintzak berrikusterako orduan, kasu batzuetan Administrazioak berak deuseztatzen du egintza, baina beste erakunde batek emandako txostenek arazoaren funtsa baldintzatzen dute. Hauxe gertatzen da egintza deusezak berrikusteko prozeduretan, zeinetan Aholku organoaren irizpena loteslea den. Egintza deuseztagarria eta interesdunarentzako kaltegarria denean, jurisdikzioak baietsi egin behar du berrikuspina. Kasu honetan, agian, aurkatu daitekeena da Administrazioarekiko Auzi Jurisdikzioak emandako epaia, ez administrazio-egintza bera. Horretaz gain, prozeduran badaude hainbat berezitasun. Adibidez, isiltasunari dagokion arauak aldatzen dira, prozedura Administrazioaren ekimenez hasten bada. Errekurtsioetan isiltasuna negatiboa da. Egintzak berrikusteko

prozeduretan, aldiz, prozedura ofizioz hasten bada, isiltasunaren ondorioa da prozedura iraungitzea.

4. Hirugarrenik, Administrazioak berak egindako akats aritmetikoak zuzen ditzake prozedura berezia jarraitu barik. Interesdunei baino ez die jakinarazi behar. Horiek ados ez badaude, errekurtsioa aurkez dezakete edo, deuseza dela uste badute, erreklamazioa tartera dezakete Administrazioaren aurrean eta egintza berrikusteko eska diezaizkete Administrazioari. Non dago ezberdintasuna zuzenketa aritmetikoa edo egitatezko akatsak eta egintza akastunen artean? Lehenetan (egitatezko akatsak eta aritmetikoak) Administrazioak ez du balioespen juridikorik egiten, izan ere, bere erabakia ez da oinarritzen arauaren interpretazioan, zalantzarik gabeko emaitzetan edo gertakari objektiboetan, baizik. Akatsa begi bistakoa edo oso argia denean, beste interpretaziorik edo irtenbiderik onartzen ez duela eta, Administrazioak zuzen dezake automatikoki, beti ere preskripzioari lotutako mugak errespetatuz. Zerga prozeduretan, esaterako, badakigu, lau urte igaro ondoren, Administrazioak edo interesdunek ezin dutela ezer eskatu (ikus. Besteak beste, 2015-6-24ko AGE, AE JUR 2015/189817).

5. Kontu eztabaidagarria da egintzak berrikustearena. Pentsa dezagun kasu batzuetan Administrazioak berak herritarrari eskubideak ematen dizkiola egintza baten bidez. Kalte larriak eragin diezazkioke agintari publikoak pertsonari, bere segurtasun juridikoa argi eta garbi urratuz. Dena dela, jakin badakigu Administrazioak berak legaltasuna babestu eta sustatu behar duela, Konstituzioak berak horretara behartzen baitu (EK-ko 103.1 art.). Nola konpon daiteke segurtasuna eta legaltasunaren arteko gatazka hori? Jarraian prozedura batzuk aztertzen ditugu, zeinetan ikusten den Administrazioak berak eskakizunak eta baldintzak bete behar dituela, egiaztatzeko berak ere ez duela jarduten arduragabekeriaz edo fede txarrez.

6. Hain zuzen, Administrazioak berak emandako ebazpenak berrikusteko orduan, prozedura bereziak jarraitu behar ditu, bere ñabardura eta arau zehatzak aplikatuz. Haietan ikus daiteke honako ezaugarri hau: Administrazio-organotik kanpoko erakundeak esku hartzen du, bermatzeko Administrazioak legaltasun eta zuhurtziaz jardun duela. Izan ere, egintza deusezak berrikusteko prozeduretan Estatu Kontseiluak edo Autonomia Erkidegoetako Aholku Organoak egintza berrikustearen aldeko txostena eman behar dute. Deuseztagarrietan, ostera, jurisdikzioak berak baieztatu behar du berrikuspena. Dena dela, Administrazioak herritarrari kalteak eragiten badizkio, nola konpon dezake bere egoera juridikoa?

7. Printzipioz, Administrazioarengan jarri du konfiantza osoa herritarrak, eta agintari publikoak berak ere bere egoera juridikoari eusteko itxaropenak eman dizkio. Gainera, egintzak ezin du atzera eraginik izan pertsonari kalteak sortzen badizkio (APELeko 39.3 art.). Pertsonak eskubiderik baldin badauka ezin zaiola kendu edo murriztu, Administrazioak eman baitizkio bere eskubideak errespetatzeko itxaropenak. Administrazioak eskubideak kentzea ebazten badu – egintza berrikustean, esaterako – aurretiaz aitortutako itxaropenak bortxatzen ari da, eta iraganeko gertakari eta egoerari eragiten dio. Dena dela, kalte horiek konpontzen saiatzen da Administrazioa kalte-ordaina ordainduz. Bere erantzukizuna islatzen da beste pertsona batzuei min egiteagatik edo eskubideak kentzeagatik. Baina, 2. Gaietan ikusi genuenez, kalteak eskakizun zehatzak bete behar dituzte Administrazioari erantzukizuna galdatzeko. Beraz, ondarezko erantzukizunari lotutako irizpideak aplikatu beharko dira kasu honetan ere.

8. Bukatzeko, adibidea azalduko da jarraian. Administrazioak kultur elkarteari diru laguntza eman zion ebazpenaren bidez (administrazio egintza). Dena dela, egintza irmoa

izanda, Administrazioa ohartzen da deialdian jasota zeuden irizpideak eta oinarriak ez zituela bete, eta horien arabera, diru laguntza beste elkarte bati zegokiola. Lehengo ebazpena berrikustea erabaki zuen. Prozedura hasita, elkarteak kalte ordaina eskatzen dio Administrazioari, hainbat ekitalditik eratorritako gastuak egin zituelako. Hauxe argudiatzen dute: diru laguntza jaso ezik, ezin izango zuketan hainbeste ekitaldi antolatuko eta, horren ondorioz, hainbeste gastu egingo. Argi dago Administrazioak huts egin zuela, elkarteari bermatuz esleitutako diru kopurua kezkarik gabe xahu zezakeela.

2. Objektua eta mugak

9. Administrazioak berak emandako egintza deusezak edo deuseztagarriak direnean, honako kasu hauetan (APELeko 106.1 eta 2 art.):

- a) Administrazio-bidea amaitu duten egintzak.
- b) Interesdunak epe barruan egintza aurkatu ez duenean (egintza irmo bihurtuz).
- c) Xedapen orokorrak (erregelamenduak) ere berrikus daitezke, baina kasu horretan Administrazioari baino ez dagokio prozedura hasia (ofizios, ez interesdunaren ekimenez). Kasu honetan egintza deusezak berrikusteko prozedura jarraitu beharko du Administrazioak.

10. Mugak: Administrazioak edozein unetan balia ditzake egintza deusezak berrikusteko ahalmenak, deuseztasuna behin betikoa baita. Dena den, jarduketa horrek egoera egonkorrei kalte larriak sor diezazkieke. Legearen arabera, berrikusteko ahalmena ezingo du baliatu honako kasu hauetan (APELeko 110 art.):

- a) Akzioen preskripzioa, denboraren igarotzea edota bestelako gorabeherak direla-eta.
- b) Berrikuspen hori zuzentasunaren, fede onaren, herritarren eskubideen edo legeen aurkakoa bada.

Kasu bietan islatzen da legezketasuna eta segurtasun juridikoaren arteko tentsioa.

3. Organo eskudunak

11. Estatuko Administrazioan Ministro Kontseiluak dauka eskumena berak eta ministroek emandako egintzak eta xedapenak berrikusteko edota prozedurak hasteko. Kasu batzuetan Administrazioak egintza interes publikorako kaltegarritzat jotzen duelako adierazpena egin behar duela, zuzenean berak ezin duelako berrikusi, egintza deuseztagarriak direnean. Ministroei dagokie, Estatuko Idazkariak eta Ministroen menpeko organo zuzentzaileek onartutako xedapenak eta emandako egintzak berrikusteko eskumena. Estatuko idazkariak dute beraien menpeko organo eta erakundeek emandako egintzak eta xedapenak berrikusteko edo prozedura hasteko eskumena [APELeko 111 b) art.].

12. Erakunde publikoek egintzak ematen dituztenean, legeak beraiei atxikita dauden organoek aitortzen die prozedura hasteko eta xedapenak eta egintzak berrikusteko eskumena. Legeari jarraikiz, eskumena dauka «Organismo publikoak eta zuzenbide publikoko entitateak adskribaturik dauden organoak, haien artezkaritza-organo nagusiak emandako egintza eta xedapenei dagokienez». Berrikusteko ahala aitortzen dio Organismo publikoen eta zuzenbide publikoko entitateen artezkaritza-organo nagusiari,

haien mendeko organoek emandako egintza eta xedapenei dagokienez (APELeko 111 art.).

13. Autonomi erkidegoen edo lurralde historikoen kasuan, beren antolamendua arautzen duten xedapenek jasoko dute zer organok daukan eskumena. Hala ere, legearen zentzuari jarraikiz, logikoa da ematea eskumena goragoko organoari. Izan ere, Sailburuek izango dute eskumena Sailburuordeek emandako egintza eta xedapenak berrikusteko eta prozedura hasteko.

14. Toki Administrazioari dagokionez, Osoko Bilkurak dauka eskumena egintzak interes publikorako kaltegarritzat jotzeko eta ulertzekoa da ere egintza deusezak direnean, beraiek berrikusteko eskumena prozedura egokia jarraitu behar dutela [TAOL 22.2 k) art.]. Eskumen hau ezin dezake laga eta Alkateari dagokio adierazpen hori proposatzea [TEOL 21.2 l) art.].

4. Egintza deusezak berrikustea

15. Aipatu beharra dago egintza deusezak direla, Administrazioak ebazpen akastunak ematen baditu, APELeko 47.1 artikulua jasotzen dituen eskakizunak beteta. Ordenamendu juridikoaren ez-zilegizko zio oso larriak direla eta, prozedurak bermez josita egon beharko du. Izapidea hasiko da Administrazioaren ekimenez edo interesdunak eskaturik. Interesdunak Deuseztasun-akzioa egikari dezake, baina egintza deuseztat hartuta, interes publikoari eragiten omen dio eta legitimazioa zabaltzen omen da.

16. Epea: Lehen aipatu bezala, Legeak adierazi du egintza deuseztatzeko eskaera “edozein momentutan” aurkez daitekeela. Beraz, epe finkorik ez dago. Hala ere, APELeko 110 artikulua muga batzuk ezarri ditu segurtasun juridikoa bermatu ahal izateko. Adibidez, preskripzio epea, fede ona edo hirugarrengoen eskubideak ukitzen baditu, epe finko bat aplikatu behar dela ulertuko dugu. Interesdunek edo Administrazioak kasuz kasu baldintza honi men egingo diote, eta inguruabarrak aztertu beharko dituzte. Adibidez, demagun pertsona batek ondasun baten jabetza-eskubidea hartu duela preskripzioagatik. Administrazioak ezingo du berrikusi egintza bat adieraziz ondasun hori Administrazioari berari dagokiola, pertsonaren segurtasun juridikoa bortxatuko zuelako (2001-12-7ko AGE, AE 2002/5116).

17. Ebazteko eskumena duen organoak egintza betearaztea eten dezake, egintza horrek kalte konponezinak edo konpongaitzak sortu baditzake (ikus. APELeko 108 art.). Kautela neurria izanda, bere helburua da ebazpenaren eraginkortasuna bermatzea eta proportzionaltasun printzipioa ere aplikatu beharko du kalte edo galera handiagoak saihesteko. Beste neurri batzuk har ditzake organo eskudunak behin betiko ebazpenaren eraginkortasuna bermatzeko. Adibidez, enpresari bere jarduera burutzeko baimena eman badio, eta Administrazioak baimena (egintza) hori berrikusteko asmoa badauka, kautela neurri moduan erabaki dezake ekoizpena edo jarduera bertan behera uztea, edo makinak eta ekipoak dekomisatzea, kalte konponezinak saihesteko behin betikoz.

18. Eskaera aurkeztuta, Administrazioak hori ez onartzea erabaki dezake. Horrek ez du esan nahi eskaera ezetzi duenik, baizik eta arazoaren funtsa ez duela ebatziko. Hain zuzen, Administrazioak eskaera ez du onartuko honako kasu hauetan (APELeko 106.3 art.):

- a) APELeko 47.1 artikuluko deuseztasuneko arrazoiren batean oinarritzen ez denean.
- b) Argi eta garbi funtsik gabeko eskaera denean.
- c) Oinarri berdintsuko beste eskaera batzuk funtsari dagokionez ezetsita daudenean. Onartzen ez bada, ebazpen horren kontra helegitea jar daiteke.

19. Interesdunei alegazioak aurkezteko aukera eman behar die organo eskudunak. Entzunaldiak balioko du ere interesdun guztiei espedientea aztertzeko aukera emateko (APELeko 76.1 art.). Egintza edo xedapena deuseztatzea dela adieraztean, ebazpenean bertan organoak interesdunei dagokien kalte-ordaina jaso dezake, ondarezko erantzukizunari buruzko eskakizunak betetzen badira (SPAJLeko 32.3 eta 34.1 art.). Gogoratu interesdunak kaltea jasateko betebeharririk ez duela izan behar, eta kalteek ekonomikoki neurgarriak, pertsona bat edo talde bati eragindakoa eta benetakoa izan behar dute. Hargatik eragotzi gabe, xedapena denean, xedapen horren ondorioz emandako egintza irmoek iraun dezakete (APELeko 106.4 art.). Entzunaldia eginda, aholku organoak derrigorrezko irizpena eman behar du.

20. Aholku organoaren irizpena

Estatu kontseiluari edota Autonomia Erkidegoko aholku organoari irizpena eskatu behar die Administrazioak, eta irizpen hori loteslea da, hots, berrikustearen aldekoa izan behar du egintza berrikusteko (APELeko 106.1 art.). Honako hipotesi hauek gerta daitezke:

- a) Aholku organoak irizpenik ez ematea. Egintza berrikusterik ez dago. Ebazpena eman eta jakinarazteko epea eten dezake instruktoreak, interesdunei hori jakinaraziz, txostena eskatzen denetik jasotzen denera arte. Hala ere, Legeak ezartzen du txosten hori bidaltzeko gehienezko epea hiru hilabetekoa dela [APELeko 22.1 d) art.]. Prozedurak jarrai lezake, baina irizpena epez kanpo jasota ere, kasu egin behar dio Administrazioak. Izan ere, ebazpena irizpen horrekin ados ez badago, ebazpena bera berrikusi beharko luke organo eskudunak. Bestela, deuseza izan daiteke.
- b) Irizpena berrikustearen kontrakoa da. Egintza ezin da berrikusi.
- c) Irizpena epe barruan ematea eta egintza berrikustearen aldekoa bada, Administrazioak egintza deuseztat deklaratu du, irizpena loteslea baita.

21. Amaiera: ebazpena eman eta jakinarazteko epea sei hilabetekoa da (APELeko 106.5 art.). Epe hori zenbatzen da eskaera erregistroan sartu zenetik edo Administrazioak prozedura hasteko erabakia hartu zuenetik (APELeko 21.3 art.). Dena den, organo eskudunak epe hori eten dezake aholku organoek egin beharreko irizpena jaso arte. Egia esan, eta jurisprudentziari jarraikiz, epearen barruan ebazpena jakinaraztea sartzen da. Beraz, nahiz eta Legeak adierazi ebazteko epea dela, jakinarazteko ere bada denbora tarte hori (2006-12-27ko AGE, AE 2006/10062).

22. Epea igarota, isiltasunak jasotako ondorioak aplikatuko dira. Iraungitzea, administrazioaren ekimenez hasitako prozeduretan, eta ezetsizat joko da interesdunaren ekimenez hasitako prozeduretan (APELeko 106.5 art.). Aipatu beharra dago bi kasuetan isiltasunari dagokion arauari men egin behar zaiela (APELeko 21-25 eta 95 art.). Akzioa baliatuta eta Administrazioak epean ebazten ez badu, isiltasuna dela eta, interesdunak Administrazioarekiko Auzi-jurisdikzioaren aurrean helegitea aurkez dezake. Honen inguruan jurisprudentziak aitortu du jurisdikzioak bakar bakarrik agindu diezaiokeela Administrazioari prozedurari ekiteko, eta ezingo duela ebatzi egintzaren deuseztasunaz (2009-5-21ko AGE, AE 2009/4385). Prozedurarekin lotutako izapideak bete behar ditu

Administrazioak, bestela errekurtsio eta egintzak berrikusteko araubidea parekoa izango litzateke (1995-6-30ko AGE, AE 1995/5972).

23. Honako ondorio hauek adieraz ditzake ebazpenak:

- a) Berrikusteko eskaera ez onartzea.
- b) Egintza deuseza dela adieraztea.
- c) Hasitako prozedura iraungitzea, ebazpena eman eta jakinarazteko epea agortu eta prozedura administrazioaren ekimenez hasten bada.
- d) Egintza bat berrikustearekin batera, interesdunak jaso behar duen kalte-ordainaren zenbatekoa ezarriko da ebazpen berean, ondarezko erantzukizunari dagokion eskakizunak ematen badira (APELeko 106.4 art.).

5. Administrazio egintza deuseztagarriak eta mesedegarriak berrikustea

24. Administrazioak jurisdikziora jo behar du, berak emandako egintzak berrikusteko, azken haiek mesedegarriak badira. Pertsonen eskubideak murriztu edo kendu ditzakeenez, Administrazioak ezin du beraren kabuz eta zuzenean egintza berrikusi. Lehenik, arrazoitu behar du nola ukitzen dion egintzaren legekontrakotasunak interes publikoari, eta, horren ondoren, jurisdikzio-bermea behar du, berak egiaztatzeko Administrazioa saiatzeko dela egintza legaltasunari egokitzen. Beraz, administrazioaren erabakiaren ordean, auzitegi edo epaile baten erabakia izango dugu.

25. Egintzak mesedegarria izan behar du. Kaltegarria izanez gero, APELeko 107 artikulua xedatzen duen prozedura izapidetu beharko luke Administrazioak. Are gehiago, egintzak ez du izan behar efektu mistorik, hau da, kaltegarria batzuentzako eta mesedegarria beste batzuentzako. Argi eta garbi Administrazioak subjektu zehatzaren eskubideei kalteak eragin behar dizkiela. Bestela, egintza deuseza izango litzateke, adibidez, berdintasuna bortxatzeagatik [APEL 47.1 a) art.].

26. Administrazio-fasea: Administrazioak egintza interes orokorraren ikuspuntutik kaltegarritzat jotzen du. Interesdunek ezingo dute eskaerarik aurkeztu. Prozedura ofizioski hasten da (APELeko 107.2 art.). Estatuko Administrazioan gai horretan eskuduna den organoak egin dezake adierazpena eta Toki Administrazioan Osoko Bilkurak dauka eskumena (APELeko 107.4 eta 5 art.). Eskumena duten organoak zehazteko, ikusi organo eskudunei dagokien atala.

- a) Egintza interes publikorako kaltegarritzat jotzeko epea: lau urte egintza eman denetik.
- b) Entzunaldia: interes orokorrari kaltegarria jotzeko adierazpena eman aurretik, interesdunari entzun beharko die Administrazioak, eta izapide horretan espedientea aztertzei aukera izango dute.
- c) Organo eskudunak egintza betearazteko etendura erabaki dezake, egintza horrek interes orokorrari kalte konponezinak edo konpongaitzak sortzen badizkio (APELeko 56 eta 108 art.). Kautela neurria izanda, Administrazioak erabaki hori arrazoitu behar du eta eskubide guztiak neurtu behar ditu, proportzionaltasun printzipioaren arabera. Enpresa beten itxierak, adibidez, mozkinen galerak ekar litzateke akziodunari, eta kasu batzuetan agian ez da ezinbestekoa jardura osoa bertan behera uztea. Organo eskudunak kasuz kasu eta inguruabarrei erreparatuta,

talka egiten duten eskubide eta interes guztiak neurtu behar ditu, arrazoiak adieraziz.

d) Prozedura hasi denetik sei hilabete igarotzen badira eta epe horretan egintza kaltegarritzat jo ez bada, prozedura iraungi egingo da (APELeko 107.3 art.). Kasu honetan ere, isiltasunari dagokion arauak aplikatu behar dira (APELeko 21-25 eta 95 art.). Adibidez, prozedura iraungitzeak esan nahi du organo eskudunak jarduketak artxibatu behar dituela eta Administrazioak interesdun guztiei ebazpena jakinarazi behar diela, adieraziz prozedura bukatu dela iraungitzeaz.

e) Administrazioak egindako adierazpen hori, interes orokorrerako kaltegarritzat jotzea, ezin da aurkatu, hau da, haren kontra ezin da administrazio errekurtsorik jarri. Interesdunei jakinaraziko zaie jakinaren gainean egoteko, beste efekturik gabe (APELeko 107.2 art.).

f) Planteatu den beste arazo bat da kalte-ordaina eskatzearena. Nahiz eta Administrazioak egintzak legaltasunari egokitu, eta kaltea jasateko beharra izan, kalteak eragin ahal dizkio pertsona bati itxaropenak emateagatik, bidezko konfiantza hautsiz. Beraz, ondarezko erantzukizunari buruzko eskakizunak ematen badira (SPAJLeko 32 eta 34 art.) ez legoke oztoporik Administrazioari kalte-ordaina galdatzeko.

27. Jurisdikzio-fasea: Egintza emandako administrazioak egintza bera aurkatzen du Administrazioarekiko auzi-jurisdikzioaren aurrean.

a) Epea: egintza kaltegarritzat jotzen den unetik bi hilabete izango du administrazioak jurisdikzioan demanda aurkezteko (AAJL 46.1 art.).

b) Prozesuaren subjektuak: administrazioa demanda egilea eta demandatua izango da, egintza haren hartzailearekin batera, egintzak onurak eman zizkiolako.

6. Egintzak errebokatzea

28. Zer nolako egintzak errebokatu ditzake Administrazioak? Horrek pertsona bati kargak ezartzen dizkion edo norbanakoarentzako kaltegarriak direnak. Adibidez, aginduak edo zigorrak dira adibiderik aipagarrienak. Beraz, esan daiteke Administrazioak edonori zigorra edo betebeharrak kentzen diola. Gakoa da efektu mesedegarri horrek diskriminaziorik ez ekartzea. Baldintza da preskripzio epea agortu ez izatea, eta kasu horretan Administrazioak norbanakoari erantzukizunik ezin diola eskatu (ikus. APELeko 109.1 art.).

29. Prozedura: Errebokatua den egintza emateko prozedura bete behar du Administrazioak. Egintza deuseza bada, lehen aipatutako prozedurari jarraitu beharko diote interesdun guztiek (APELeko 106 art.), eta prozedura ofizioz has daiteke. Deuseztagarria izanik, aldiz, administrazioak besterik ez dio prozedurari ekingo. Horrek esan nahi du Administrazioak egintzak errebokatzeko prozedura jarraitu behar duela bakar bakarrik egintza deuseztagarria denean, ez deuseza.

a) Estatu Kontseilua edota Euskal Aholku Batzorde Juridikoak ez dute irizpena zertan eman.

b) Ebazpena eman eta jakinarazteko epea: ez da eperik ezartzen, baina kontuan hartu behar dira APELeko 110. artikulua jasotako mugak (preskripzioa, uste ona, herritarren eskubideak eta legeak). Bestalde, isiltasunaren zentzua negatiboa izango litzateke egintza mesedegarria baita [APELeko 25.1 a) art.], eta APELeko 21.3 artikulua so eginez, gehienez hiru hilabeteko epea da, prozedura hasteko egintza eman zenetik [APELeko 21.3 a) art.].

c) Egintza betearazteko etendurari buruz, APELeko 108. artikulua so egin behar zaio.

30. Salbuespenak eta mugak (APELeko 109.1 art.):

- Legeek onartzen duten salbuespenak edo jaregiteak.
- Berdintasunaren printzipioa, ordenamendu juridikoa eta interes publikoa.

7. Akatsak zuzentzea

31. Egintzak eta xedapenak berrikustea eta akatsak zuzentzea bereizi behar dira. Lehenengo kasuan Administrazioak lehen azaldutako prozedura izapidetu behar du berme guztiekin, eta akatsak zuzentzeko, aldiz, zuzenean egin dezake. Kasu bietan Administrazioak akatsak egiten ditu, baina egintzak berrikusteko, ordenamendu juridikoa hautsi egin behar du, funtsezko ebazpenari eta interesdunaren egoera juridikoari eraginez. Administrazioak akatsa eragiketa matematikoa edo idaztean akats ortografikoa egiten badu, eta araudiaren interpretazioarekin zerikusirik ez badu, hark zuzen dezake prozedurarik jarraitu gabe.

32. Horrela, APELek zera jaso du: «Administrazio publikoek edozein unetan zuzendu ditzakete, ofizioz edo interesdunek eskaturik, beren egintzetako oker materialak, egitezkoak edo aritmetikoak» (109.2 art.).

BIBLIOGRAFIA

BALANÁ VICENTE, S., “Revisión de oficio de actos administrativos nulos de pleno derecho”, *Diario La Ley*, 8621, 2015. BAUZÁ MARTORELL, F.J., “Contrato verbal, revisión de oficio y enriquecimiento injusto”, *Revista Española de Derecho Administrativo*, 181, 2016, 227-252 orr. BOCANEGRA SIERRA, R., Lecciones sobre el acto administrativo, Zizur, 2012. BOTO ÁLVAREZ, A., “Actos administrativos que lesionan derechos y libertades que lesionan derechos y libertades susceptibles de amparo constitucional: análisis de la doctrina de los órganos consultivos en expedientes de revisión de oficio”, *Herri-Arduralaritzako Euskal Aldizkaria*, 96, 2013, 19-72 orr. BUENO ARMIJO, A., “La revisión de oficio”, GOSÁLBEZ PEQUEÑO, H. (zuz.), *La nueva Ley del Procedimiento Administrativo Común*, Madril, 2016, 371-450. CORDÓN MORENO, F., *La revisión de oficio de los actos administrativos y disposiciones de carácter general y su control jurisdiccional: un estudio desde la jurisprudencia*, Civitas, Madril, 2013. DOMINGO ZABALLOS, M.J., “Revisión de oficio, recursos y reclamaciones”, RIVERO ORTEGA, R. et. al. (zuz.), *Instituciones de procedimiento administrativo común: novedades de la Ley 39/2015 del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas*, Salamanca, 2016, 229-332 orr. FERNÁNDEZ TORRES, J.R., “Revisión de oficio de los actos administrativos

dictados con infracción del derecho comunitario; nihil novum sub sole”, *Noticias de la Unión Europea*, 205, 2002, 55-60 orr. GALLARDO CASTILLO, M.J. eta ROCA FERNÁNDEZ-CASTANYNS, M.L., “Reflexiones en torno a la revisión de oficio de los actos administrativos”, *REGAP: Revista Galega de Administración Pública*, 42, 2011, 249-260 orr. GALLARDO CASTILLO, M.J., “La revisión de los actos administrativos. La revisión de oficio y la revisión rogada”, GALLARDO CASTILLO, M.J. (zuz.), *Aproximación al nuevo procedimiento administrativo común de la Ley 39/2015: reflexiones y claves para su aplicación*, Madril, 2016, 217-286 orr. GARCÍA URETA, A., *Temas de Derecho Administrativo*, 2. Bol. Bilbo, 2016. GONZÁLEZ-VARAS IBÁÑEZ, S., “La revisión de oficio”, *Actualidad Administrativa*, 3, 2016. REBOLLO PUIG, M., “Revisión de oficio de los acuerdos locales a instancia de las Administraciones estatal y autonómicas”, RUIZ OJEDA, A. (koord.), *El gobierno local: estudios en homenaje al profesor Luis Morell Ocaña*, Madril, 2010, 453-482 orr. RUIZ PIÑEIRO, F., “La revisión de los actos en vía administrativa tras la Ley 39/2015: revisión de oficio”, *Actualidad administrativa*, 1, 2017. SANTAMARÍA ARINAS, R.J., “La reforma del art. 105.1 LPC y la revocación de los actos administrativos”, *Revista de Administración Pública*, 151, 2000, 441-464 orr.